



Nafarroako Bertsolari Txapelketa 92

# Txomin Ezponda izan zen Luzaideko garailea

Joanes Arrosagaraik bigarrenez egin zuen huts, parte ez hartzea erabaki bait zuen azken momentuan

**T**xomin Ezponda nagusitu zen joan den igandean Luzaiden egin zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioan. Bertsolari jatsuiarrak puntuaziorik altuena lortzeaz aparte gartzelako gai onenaren kopa eskuratu zuen.

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Jose Migel Arginarenak eta Urko Atxotegik ere saio nahiko ona burutu zuten. Joanes Arrosagaraik berriz ere huts egin zuen, eta ez zuen saioan parterik hartu, Donazarren egin zuen bezala.

Txapelketa saiorik ez zen sekula izan Luzaiden, inoiz bestelako saioak izan diren arren. Luzaidarrek eskertu egin zuten aurreten antolatzaileek beren herria kontutan hartu izateak, eta bertako Antonio Sanchez Kultura zinegotziak beste batetan ere txapelketa Luzaiden gustora hartuko luketela azaldu zuen.


Bertso saioa udaletxepeko saian egin zen, 120 entzuleek areto txiki eta txukuna bete egin zuten, batzuk zutik, beste batzuk ataririk eta beste batzuk leihoetatik jarraitu behar izan zuten saioa. Bertidanik esan da hobe dela areto txiki eta bete bat, haundia eta erdi hutsa baino, beraz giro ederra Luzaiden igande arratsaldean izan zena.

Iragarriak zeuden zortzi bertsolarietatik zazpi hartu zuten parte Luzaideko saioan. Fermin Mihura, Jose Migel Arginarena, Urko Atxotegi, Salvador Madañaga, Eusebio Fagoaga, Bautista Perurena eta Txomin Ezponda izan ziren Luzaideko saioan aritu zirenak. Zortzigarrenak, Joanes Arrosagaraik, egundoko sorpresa eman zuen.

Toreroen hizkeran *espantada* izango litzateke egin zuena, izan ere bazkarian besteei bertsotan desafioka oso animoso ibili eta gero, aintzilearrek bazkalostean etxerako bidea hartu zuen, eta ez zen saioan agertu. Donazarren bezalaxe, Luzaiden ere Alkhat aritu zen Joanes Arrosagaraik utzitako hutsunea betetzen, honetan bere puntuazioa kontutan hartu gabe.

## KONTRABANDISTA ETA GENDARMEAK

Ohizko samarrak izan ziren Luzaiden plazaratu zirenak. Badirudi Nafarroako Txapelketa ez dela lekuri egokiena berrikuntza handiegirik egiteko. Bertsolariak gustorago ibiltzen dira horrelakoetan ohizkoak diren gaiekin, eta badirudi entzulegoa aiseago sentitzen dela horrela-



Ezpondak gartzelakoan egin zuen lanik onena. CARLOS VILLAGRAN

✓ Luzaideko saioan, oro har, ez zen lortu Donazarren adina maila eta puntuazioetan 500 puntuko neurria ez zen bete, Ezpondak izan ezik.

koak ematen zaizkienean. Gairik aipagarrienak, beharbada bi lirake. Bata saioa Luzaiden izanik, eta muga desagertzeaz egoz, gendarme eta kontrabandista.

Bestea Luzaide Santiagoko bidean dagoen herria denez haxe litzateke, bi erromes elkarrekin 400 kilometro oinez egin eta gero Luzaidera ailegatu dira, baina batek kotxea hartzen du.

## Orain arteko puntuaziorik altuenak

Kexux Arzallus .....	(545,5) D
Xalbador .....	(544,5) D
Ernest Alkhat .....	(544,5) D
Txomin Ezponda .....	(520) L
J.M. Arginarena .....	(505) L
Urko Atxotegi .....	(490,5) L
Antonio Olano .....	(480) D
Fermin Mihura .....	(482,5) L

(D): Donazarren  
(L): Luzaiden


Gainekoak antzeko gaiak izan ziren, umoretsuak. Bakarka kantatzeko gaien bertsolariek 50 urtez Ameriketara lanean eman ondoren sorterrira itzuli eta etxea husturik eta bazterrak sasiak janda aurkitu zuten.

Txomin Ezponda izan zen ofiziozko zein bakarkako lanetan saiorik txukunena burutu zuena, eta besteak beste, bakarkako lanean gartzelako gaien lortu zuen kopa saria berarentzako izatea, bere lanarekin oro har saioa puntuaziorik altuena lortzeaz aparte. Berak bakarrik gaintu zuen 500 puntuko maila.

Puntuazioetan bigarrena Jose Migel Arginarena izan zen, puntuazioen arabera, bigarrena Luzaideko saioan. Momentu batean errazkindarrak txapelketan aritzeko moduan ez zegoela adierazi zuen, baina hain zuzen ere hori kantatu eta gero, hurrengo bertsoan, gartzelakoan, etorri zen bere saioa bertsorik onena.

## ATXOTEGI ETA PERURENA

Urko Atxotegi hirugarrena izan zen, eta ofizioz ari zela



Arrosagarai iaz Izuran.

✓ Donazarren bezalaxe, Luzaiden ere Alkhat aritu zen Arrosagaraik utzitako hutsunea betetzen, honetan bere puntuazioa kontutan hartu gabe.

## Aurpegi gazteak

Aurpegi berriak agertzen ari dira nafar bertsolaritzan, eta oso gazteak gainera. Luzaiden Urko Atxotegi gazteak bigarren aldiz hartu zuen parte txapelketan. Urruñakoak ongi burutu zuen bere lehenengo lana, baina ofizioz ari zela, urduritasuna zela medio, oker galanta egin zuen. Neurri txikiko ariketa egiteko orduan, zortziko handiko doinua hartu zuen. Oker ari zen oharra pasa ziotenean, nekez konpondu zuen hankasartzea, eta kontzentrazioa erabat galdu egin zuen. Huts hori egin izan ez balu, bertsolari uruñarra oraindik gorago agertuko zen sailkapenean. Datorren asteko txapelketa saioan Estitxu Arozena eta Xabier Silveirak hartuko dute parte eta ziur aski ez dute, ez, saio eskasa egingo. Nafar bertsolaritzan belaunaldi berrietako gaztetxoak gogor sartu dira eta urte gutxitan eskola zaharreko bertsolarien nagusitasuna kolokan jartzeko gai izanen direla erakusten ari dira. Badirudi urte gutxitan belaunaldien arteko borroka latzak ikusteko aukera egonen dela nafar bertso txapelketetan.

neurri txikiko ariketan izan zuen okerragatik ez balitz izan, uruñarrak sailkapenean leku altuagoa lor zezakeen. Azpimarragarria izan zen ere Bautista Perurenaren lana. Eskola zaharreko bertsolaria, oso bertso goxoak ematen ditu beti, eta Luzaiden oso txalotua izan zen bere iharduna.

Puntuazioak hauek izan ziren: Txomin Ezpondak 520, Jose Migel Arginarena 505, Urko Atxotegi 490,5 eta Mihura 482,5. Esan bezala, Ezpondak eskuratu zuen Kopa saria. Bestalde, txapelketaren saio guztiak kontutan harturik, hauek lirake lehenengo sailkatuak: Arzallus, Salvador,

## Txomin Ezponda

Gartzelako gaien: 50 urte eman dituzu lanean Ameriketara. Sorlekura itzuli zara orain, eta etxea hutsik aurkitu duzu eta larreak sasiz beterik.

Ongi badakit zutarik urrun gehiegi egon nizala utzi zintudan konturaturik oso xumea zinala Oraino tipia daukat nik diruaren ahala, halarik ere hemen lanean hasiko naiz berehala; etxe maitea, nahi zaitut eman lehenengo zinen bezala.

Denbora hori pasatu eta oraintxe ditut kontuak aldameneko alor hoietan lapar batzuk indartuak etxe maitea, bakartean denak dituzu hartuak murrak ere lurrerat ari ziloa du teiltatuak orain zoinek barka dezazke nik zuri egin pekatuak.

Alkhat, Ezponda eta Jose Migel Arginarena, guzti hauek 500 puntu baino gehiagorekin.

Aipatu egin behar da, saioa hasi aurretik Jean Louis Harinordoki 'Lakak' aurkeztuta, Iparraldeko eskola eta ikastoletan diharduten neska-mutil koskorak aritu zirela bertsoetan.

Txapelketaren urrengo saioa Sunbillan izanen da, martxoaren 29an eta arratsaldeko lau t'erdietan. Bertan Manolo Arozena, Jose Fermin Arginarena, Bittor Elizagoien, Bautista Madañaga, Jose Mari Fagoaga, Jean Louis Harinordoki 'Laka', eta Estitxu Arozena eta Xabier Silveira gaztetxoak.